

Gure proiektuaren irabazi nagusiak, salmentatik lortuko ditugu. Baina behin maleta jungle ezaguna egiten denean, gu, enpresa moduan soilik saldu beharrean, beste enpresa multinazionalekin harremanetan jartzea eta enpresa horrekin adostasun batera iristea da gure helburua. Honela, gure produktua munduan zehar salduko da eta irabazi gehiago lortuko ditugu. Bestetik, gure irabazien zati txiki bat alokatutakoarekin lortu dugun dirua izango da.

Hasieran, esan bezala, gure enpresak egingo dituen salmentetatik lortuko dugu irabaziak baina behin beste enpresa multinazionalekin adostasun batera iristean, heuren salmenten zati bat gure enpresari dagokionez, irabaziak ere beste enpreen salmenten bidez lortuko ditugu. Beraz, irabazi gehiena gure enpresen salmentengatik eta alokairuagatik lortuko dugu eta enpresa multinazionalen salmenten zatia izango da gure irabazi zati txikia.

Hasierako inbertsioa egiteko, taldekide bakoitzak diru kopuru bat jarriko dugu gure proiektua martxan jarri ahal izateko. Gehiago beharrez gero, bankuari mailegu bat eskatuko diogu, ondoren, gure irabaziekin ordainduko duguna. Gainera, laguntza moduan, hegazkin konpainia baten laguntza izango dugu, heuren konpainiarako onuragarria bai da gure produktua eta diru kopuru bat emango digute martxan jarri ahal izateko.

